

Baratzea, iraultzaileena

OSPAKIZUN BAT DELA TARTEKO, ardo botila bat ireki dut. Ardoa Sarako baserri batean egiten dute, etxerako. Sagardo botilan sartzen dute, eta gustuz ere badu sagardoaren antza: ahoan dantzaria, alko-hola labur, zur gustu arrastorik ez eta amaiera... hori bai kategoriako amaiera, egundokoa! Sagardoa bezala, mahatsaren ardoa ere gero eta gehiago egiten da etxean etxerako. Osasuna eta bizitza-kalitatea uztartzen dakienak ederki asko daki etxean egindako gaien mailaren berri.

“Ihitia” izen gurbil pimenta du Sarako baserriak, eta jaki hauta mordoa lantzen du bertan urbis-tondotarren sendiak: sagardoa, muztioa, sagardo ospina, mahats ardoa, ezti, gasna, pate eta bestelako zerrikiak... Nik, tarteka, horietakoren bat dastatzeko ohorea dut; gaur, 2012ko ardo bikaina. Borgoina eta Bordele, tokitan daude!

Bakoitzaren eta haurrideen hazkurria bat da, ondo bestelakoak hurkoaren neurrimendua eta jendartearen alha. Kalitatezko bizigailu aukera eskuaren izatea, eskubide beharrean, bide nekea da. Hortik baratzearen garrantzia. Baratzea da munduaren hasiera. Baratzea da gaur egun egin dezakegun gauza iraultzaile bakarra. Ia bakarra. Iraultzaileena. Lurra ukitu, lurrari esker garaian garaikoaz elikatu, jatenen benetako balioaz jabetu, nekazarien lana



ANITA MATHIAS

Goian, baratze txikia Todmordenen (Ingalaterra). “Partekatzeko janaria”, dio errotuluak. Eskuinean, herriko baratzeen mapa.



WWW.CRP-LTD.CO.UK

aintzat hartu... zenbat mesede dator bakoitzaren baratzetik. Herri baratzeena hobia da. Jendartean baratzea egin ez iraultza herritarra bihurtzen da. Diruak badaki: etorkizuneko boterea elikagaien ekoizpenaren kontrolean datza. Egin ditzagun, bada, baratzeak. Baratzeak berak ekarriko ditu oilategiak, zerri-kortak, artaldeak, gaztandegiak, sagastiak, upategiak... Bizi poza.

Jabetzen ari gara, gero eta txoko gehiago bizi du baratzea jendeak. Todmordenen, Ingalaterran, buruargitu eta ernatu dira. Hiriko 70 berdegunetan fruitu arbolak,

barazkiak, belar finak eta abar landatzen dituzte. 15.000 biztanleetatik 270 borondatezko langile gisa ari dira hilean bi goizez. Lan horren uza edonork eskura dezake, baita turistak ere. Trenez bertara iristean ikusten den lehena baratze eta fruitu arboladi horien mapa bat da. Eta bertan idatzia “Help yourself!”, “Har ezazu!”.

2018rako erabat buruaski izateko itxaropenarekin ari dira, jo eta su eta ke. ■



Kanpezu-Kolonia

Kanpezuko lur garaietan bada basorik: harizti, pagadi, erkamezti... Zuhaitzak lurraren eta zeruaren arteko lotura dira. Basoak eraitsi ziren tokietan jarri omen ziren menhirrak; haitz, ordezkio zuhaitz.

Alemaniano Koloniako katedralak 153 metro garai diren dorreak ditu, zerurantz. Zeru bererantz, baina bestelako konexio bat lotzeko asmoz, meskita bat eraikitzen ari dira. Haren minarete pareka 52 besterik

ez da goratuko. Baina barruan altxor izugarri bat gordetako du: Kanpezuko Gamiz enpresak egindako zurezko hormak. Enpresa horren eraikuntzarako zuraren kalitatea mundu osoan ezaguna da. Ia beste inork ez bezala, haritzeko ijeztutako habeak eta hormak egiten ditu.

Kanpezuko basoetako zuhaitzak lotuko ditu koloniarren zerua eta lurra. ■